

Hendaian, 2002.eko irailaren 28an

Jean Haritschelhar, euskaltzainburua,
Henrike Knörr, buruordea,
Xabier Kintana, idazkaria,
B. Oihartzabal, Iker Sailburua
Andres Urrutia, Jagon Sailburua,
Patxi Altuna,
Jean Louis Davant,
Andolin Eguzkitza,
Andres Iñigo,
Emile Larre,
Juan Mari Lekuona,
Patxi Ondarra,
Txomin Peillen,
Pello Salaburu,
Juan San Martin,
Ibon Sarasola (goizean),
Jose Mari Satrustegi,
Piarres Xarriton,
eta (arratsaldean) Patxi Zabaleta euskaltzainak,
Jose Luis Lizundia idazkariorde-kudeatzailea, Juan Jose Zearreta ekonomi eragilea, eta Patxi Salaberri Onomastika batzordekidea 1.2. gaian

Ezin etorriak: Jose Antonio Arana Martija eta Miren Azkarate.

Batzarra goizeko 10,15etan hasi da Hendaiaiko Herriko Etxean ezkerreko zutabean ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Ongi etortzeko hitzak

Hendaiaiko alkateak, Joseph Louis Ecnarro jaunak Euskaltzaindiari udaletxerako ongi etorria egin dio, hiri honetan bere hileroko bilera egitera etorri delako eta Hendaiaiko Udalak euskararen alde aspaldian egiten duen lana gogoratu du. Euskaltzainburuak alkateari eskerrak eman dizkio bere eta akademia osoaren izenean, Hendaiaik euskararen alde egindako lana, ikastolaren alde bereziki, goretsiz.

Aurreko batzar agiria onartzea

Estilo kontuko ohar batzuekin akta onartu da.

1. Hizkuntza arauak

1.1. Hiztegi Batua

P. Salaburuk, aurreko eguneko bileran onarturiko hitzetan, koordinaziorik ezaz gertaturiko akats txiki batzuk ageri direla ohartarazi du. Lehenagotik onartuak diren berbekin kontraesanik gerta ez dadin, behar diren aldaketak egitea proposatu eta onztat eman dira.

Ondoren, *aloe-analogiko* zerrendari eginiko oharrak ikusi eta aztertu dira. *Alokatu-tik altxonbide*-rainoko guztiak ikusi eta erabaki dira.

1.2. Onomastika

Ondoren, Patxi Salaberri sartu da bilera aretora, Nafarroa Behereko herri-izendegiaren 4. zerrenda (Oztibarre) aurkezteko, hau da, Onomastika batzordeak 2002.eko irailaren 13an Iruñean eginiko bilkuran onartu zuen proposamena. P. Salaberrik bere

txostenaren ezaugarriak azaldu ditu. Lekukotasunak: euskal eta erdal dokumentuetan, Euskaltzaindiaren lehenagoko erabakiak, ahozko bilduriko formak, etimologia azalpenak eta deituetan azaltzen diren lekukotasunak. Hurrengo bileran erabakitzeko gelditu da.

2. Erakunde harremanak

2.1. Nafarroako Euskara Kontseilurako ordezkaria izendatzea

Nafarroako Gobernuaren Jarduneko Lehendakariaren eskaria irakurri du A. Urrutiak Euskaltzaindiak bertako Euskara-Kontseilurako ordezkaria izenda dezan. J.L. Lizundiak argitu du jaun horri gutun bat bidali zaiola, Euskaltzaindiak bere hileroko bileran irailen hori erabaki eta erantzungo ziola adieraziz. Iritzi ezberdinak entzun ondoren, izendapena mahai gainean erabakitzeko utzi da.

2.2. Eusko Jaurlaritzako Terminologiarako kidea izendatzea

Euskaltzainburuak Zuzendaritzak eginiko azken bileran Andres Urrutia Eusko Jaurlaritzako Terminologia batzorderako kide proposatu duela jakinarazi du. Hala berretsi da.

2.3. UZEIren Jardunaldietarako ordezkariak izendatzea

Era berean, J. Haritschelharrek, Zuzendaritzako azken bileran, UZEIk antolatu nahi dituen jardunaldietarako Beñat Oihartzabal proposatzea erabaki zela adierazi du. Berretsi egin da.

2.4. Lehendakariari eginiko bisitaren berri

Ondoren, Euskaltzainburuak, Akademiaren ordezkariak aurtengo irailaren 5ean J.J. Ibarretxe lehendakariari eginiko bisita dela eta, J.J. Zearretak eta X. Kintanak egin-dako txostena komentatu du, izandako elkarrizketaren xehetasunak azalduz. Txostena eranskin moduan banatu da.

2.5. Bilboko udalarekin sinaturiko hitzarmena

J.L. Lizundiak Euskaltzaindiak irailaren 17an Bilboko udalarekin lehen aldiz hitzarmen bat sinatu duela azaldu du, Zuzendaritzak eta Alkatetzak onaturiko testua euskaltzainen artean banatuz.

3. Eskuartekoak

3.1. E. Cosertu irakaslearen heriotzaren berri

H. Knörr euskaltzainburordeak Eugenio Coseriu errumaniar irakaslea, aurtengo irailaren 7an Tübingenen (Alemanian) hil dela jakinarazi du. Akademiaren izenean euskaltzainburuak Tübingengo Eberhard Karl Unibertsitateko errektoreari gutun bat idatzi dio, dolumina helarazteko.

3.2. Tuterako bilkuraren berri

Andres Iñigok, 3.2. txostentxoia komentatuz, Euskaltzaindiko ordezkariak (A. Iñigo bera, Gema Insausti Iruñeko ordezkariartzako bulego-arduraduna, J.L. Lizundia idazkariorde-kudeatzailea eta Amaia Okariz prentsa-arduraduna) Tuterako Argia ikastolako zuzendaria den Kontxi Blanco andrearekin eta Iñaki Bakero Nafarroa Oinez 2002-ren antolakizun arduradunarekin izandako bileraren berri eman du, ikastolen ospakizun horren inguruan Akademiak hiri horretan urrian egingo duen bilera eta ekitaldi publikoak koordinatzeko. Bilerak Dekano-Jauregia edo *Palacio Decanal* deritzonean egingo dira. Hango ekitaldien programa azaldu du xeheki: Euskaltzaindiaren osoko bilkura, ikastola- eta museo-bisitak, eta arratsaldeko 6 eta erdietan izango diren Yehudah ha-Leviren *Haizearen hegaletan* liburuaren aurkezpena, eta Tuterako idazleei buruzko mintzaldia.

Bilera 1,25ean eten da.

Bazkalostean, arratsaldeko 3,45etan akademiaren bilera berriz hasi da.

Andres Urrutiak Nafarroako Gobernuarekiko harremanen berri eman du, orain arteko luzamenduak azalduz. Nafar Gobernuak igorritako 4.1.1. dokumentua irakurri du. Nabararazi duenez, hor ageri diren gauza batzuk ez dira gurekin aurretik itundurikoak, azken orduan beren aldetik asmatuak baizik. Nafar Gobernuaren eta Euskaltzaindiaren arteko proposamen-kontraproposamen gutunak azaldu ditu. Protokoloa sinatzeko azken testuak zertara konprometituko gintuzkeen aztertu da.

B. Oihartzabalek uste du ezin gaitzkeela haietaz fida, orain arte bederen ez baitote beren hitzari atxiki. Bere ustez, azken testuan onartu ez dizkiguten puntuak berriz ere negoziatu behar dira. A. Urrutiak, ordeza, uste du zirt edo zart egiteko garaia dela, denbora aurrera baitoa eta jada agortuak ditugula negoziaketa gehiagorako aukerak.

4,15etan, ohiko bilera eten da, VI. Jagon Jardunaldien jendaurreko bilkurari hasiera emateko.

6,24etan Euskaltzaindiaren ohiko bilerak aurrera segitu du.

B. Oihartzabal konforme dago Nafarroako Gobernuarekiko hitzarmena sinatzeaz, baina ezin beteko konpromisorik onartu gabe. Protokoloak lezarzkgikeen konpromisoen garrantziaz eztabaida luzea izan da, on-gaitzak alde askotatik aztertuz.

P. Salaburu sinatzearen alde agertu da, zalantzak gora behera. Gauza bera uste du P. Zabaletak ere, eskatzen dizkigutenak, bere ustez, praktikan ez baitira hainbestekoak izanen. J.L. Lizundiak argi dakusa Euskaltzaindiaren interesen alde jokatu behar dela, Akademiak duen ekonomi egoera ez baita oraindik konpondu. Euskaltzainburuak nafar euskaltzainek duten aldeko iritzia kontuan hartu behar dela uste du. J.M. Satrustegik, A. Iñigo eta A. Urrutia ordezkariak orain arte egindako bitarteko lana goretsi du, horregatik beren lanbide partikularretan izandako kalteak gogoratuz. Tamalgarri deritza orain Euskaltzaindiaren barruko desadostasunak direla eta, orain arte egindako lana gaitzetsi eta oztopatzeari. Bere irudiko, guztioi horrenbeste doakigun arazo honetan ikuspegi zabalagoarekin eta epe luzera begira jokatu beharra dago.

B. Oihartzabalek ez du kritika hori ontzat eman, eta berak ez duela ordezkarien lana inola ere gaitzetsi azaldu du, baina, orain artekoen argitan, ez dela nafar gobernuaz fidatzen.

Protokoloa sinatzeko ala ez sinatzeko botazioa eginda, honako emaitzak lortu dira: alde 11 boto, aurka boto 1, eta 3 abstentzio.

Bilera arratseko 19,30etan amaitu da.

Euskaltzainburua
Jean Haritschelhar

Idazkaria
Xabier Kintana